

FUTBOLA

Jupp Heynckesek positibotzat jo du amaitu berria den denboraldia

Ez dago batere aragi zein jokalarik segituko duten Athleticen datorren denboraldian

Jupp Heynckes Athleticen entrenatzaileak positibotzat jo zuen amaitu berria den 1992-1993 Liga txapelketa. Alemaniarraren esanetan, taldeak gora-beherak izan ditu, baina orokorrean futbol ona erakutsi du. Bestalde, Athleticen arduradunek ez dute oraindik adierazi nortzuek ez duten datorren urtean jarraituko.

RAMON BASALDUA / BILBO

Athleticek sailkapeneko zortzigarren postuan amaitu du aurtengo Liga txapelketa 40 puntu eta bi positiboz. Zertan esanik ez dago, azken bi denboraldietan gertatutakoa ikusi ondoren, zuri-gorriek pozik egoteko arrazoiak badituztela. Heynckesek



De la Fuentek agur esan du Athleticen hainbat urte eman ondoren. SIMAL


berak positibotzat jo zuen amaitu berria den denboraldia, atzo Lezaman eman zuen prentsurrekoan. «Denboraldia oso-osorik

hartu eta positibotzak joko nuke. Egia da bai taldeak gora-beherak izan dituela, baina esan bezala nire jokalariek egin duten joko

ona izan da», esan zuen zuri-gorrien entrenatzaile alemaniarrek.

Bestalde, eta norbait aipatzekotan, Jupp Heynckesek aurtengo Athleticetik etorri diren mutilen lana azpimarratu zuen. Zertan esanik ez dago, Juanjo Valencia atezainak, Julen Guerrero eta Carlos Garciak sekulako denboraldia egin dutela. Horretaz gain, Ritxi Mendiguren-ek eta Ander Garitanok ere txapelketa ona egin dutela esan zuen.

Liga amaituta dagoenean, oraindik ez dago argi zein gizonen osatuko duten datorren urtean Athleticen taldea. Alde batetik, ez dirudi Athleticen jokalaririk fitxatuko denik. Nobedaderik izatekotan Bilbao Athleticetik etorriko litzateke. Horretaz gain, Gracia, Billabona eta Asierren etorkizuna erabakitzeko dago. Asierrek Athleticen jarraitu nahi du, baina ez dirudi beste biek jarraituko dutenik.



Fermin Ezkurra.

Oporrek ez dute lasaitasunik ekarri Osasunara

IRUNEA

Uztailaren 26ra arte jai izanen dute jokalariek gorritxoek. Oporrak hasi dira beraz, baina oraindik ere berri asko sortzen ditu Gaztelu plazako taldeak. Joan den igandean Pedro Mari Zabalzak heldu den urtean ere Osasunako entrenatzailea izanen dela iragarri zuen. Arrotxapeakoak Zuzendaritza Batzordeak aho batez egin dion eskaerari kasu egin dio, eta beste denboraldi bat emanen du —zortzigarren aldiz hain zuzen ere— Osasunako entrenatzaile gisa. De Luis, Murillo, Cholo eta Iru jokalariek, ordea, ez dute Osasunaren segitzaririk izanen, guztiei baja eman baitzien atzo Gaztelu plazako taldeak, eta aurki gauza bera egin lezake Angelov, Stevanovic eta Martin Dominguezekin. Bestalde, atzo Osasunarekin kontratu berriak sinatu zituzten Jose Mari eta Pascualek. Bi jokalariek 1996ra arte jokalariek gorritxoak izanen dira kontratu horien arabera. Pedro Mari Zabalzak eta Fermin Ezkurra herenegun prentsurrekoan azaldu zuten, eraso gorritxo eta zelai erdiko ezker hegala berrindartzeko bi jokalariek fitxatzeko asmoa du Nafarroako taldeak. Taxoaren harrobiko jokalariek ere lehen taldean toki bat izanen dute; izan ere, Castillejo eta Edu Martinez Zabalza-aren agindura ariko dira heldu den urtean, lehen taldeko gainontzeko jokalariekin batera.

EZKURRA MADRILEN GAUR Koseckiren afera argitzeko bidean dago, eta bide horretan aurrerapaso nabaria eman lezake gaur Fermin Ezkurra. Osasunako lehendakariak Atletico Madrid taldeko ordezkariak bilera izanen du gaur. Bilera horren atarian kritika gogorak egin ditu Jesus Gil Gilek Ezkurra-aren kontra, baina azken honek kritika horiek ez dutela iraindu azaldu du «futbolaren munduan ahal duenak iraintzen duelako, eta ez ordea nahi duenak».

Alberto: «Ez genuenez punturik lortu pixka bat triste geunden igandean»


DONOSTIA

Atzo egin zuen Realak denboraldiko azkeneko entrenamendua. Gaur Atotxaren agurrean euskal selekzioaren kontra jokatuko du eta bihar Realeko zuzendaritzak eta lehen taldeko kideek Anoetari bisitatxoa egingo diote eta gero Realak B multzokoekin batera, bazkari bat egingo du.

Iragan igandean Realak oheretako lekukoa izan zen, Barcelona Liga eskuratu baitzuen. Partidu horretako onenetakoa Alberto Lopez atezaina izan zen, baina pixka bat triste zegoela zioen atzo. «Nou Campen punturen bat lortzeko asmoa genuen. Azkenean ez genuen batere eskuratu eta horregatik pixka bat triste geunden aldageletan. Izan geni-

tuen zenbait aukera zerbait ekartzeko». Albertok ongi pasatu zuela adierazi zuen, «giro polita baitzegoen. Horrelako neurketak jokatzeak ederrak izaten dira».

John Toshackek, berriz, hurrengo denboraldirako helburu bat du: «Pare bat fitxaketarekin, kompetentziaren bila goaz. Aurtengo asko sufritu dugu eta hurrengo denboraldirako izatea nahi dut».



Alberto atezaina.

KOCH

Joko kaskarra

Athletic, Osasuna eta Realak ez dute denboraldi honetan futbol berri egin. Azkeneko jardunaldian ere hori bera ikusi dugu. Talde bilbotarrak asko jokatu gabe irabazi egin zion Espanoli, ekipo nafarrak Lehen Mailako azkenaren kontra porrot, eta Realak aurrearen aurka gauza bera. Egia esan, hiru euskal taldeetako zaletua ez da kontent geratu eure jokalariek egin duten jokarekin eta guztion itxaropena hurrengo denboraldian futbol politagoa ikustea da. Kalitatea badago baina barruan duten guztia plazara iraino falta.

SAILKAPENA		ASTEKO SELEKZIOA	
20	Kosecki	JARDUNALDIA	38
16	M. Gonzalez Andrinua Roberto		
14	Alkiza Uria Guerrero Larrazabal II Valverde		
12	Mendiguren Larrazabal I Spasic Merino Pepin	ESTIBARIZ (2)	PEPIN (12)
11	Imanol Pikabea Carlos Xavier Valencia Oceano	MERINO (12)	OCEANO (11)
10	Yubero Garitano Larrazabal Ziganda	VALVERDE (14)	ZIGANDA (10)
9	Imaz Fuentes Urban Larrañaga	JUPP HEYNCKES (12)	
15	John Toshack		
12	Jupp Heynckes		
10	P. M. Zabalza		

Parentesi artean jokalariek bakoitzak izan dituen agerraldiak.